



## EGA • ALTE • EEMB • C1

EGA *Euskararen Gaitasun Agiria*

ALTE *Association of Language Testers in Europe*

EEMB *Europako Erreferentzi Marko Bateratua*

C1 EGAREN maila, Europako Kontseiluaren sailkapenean

Euskararen Gaitasun Agiria  
**EGA**



### Aurkibidea

---

1. **EGA ALTEn**
2. **ALTEren Jokabide Kodea**
3. **EGAKo Zuzendaritzaren ardurak**
4. **Azterketa erabiltzaileen ardurak**
5. **EEMB eta C1**
6. **ALTEren gutxieneko estandarrak (MS) ingelesez eta euskaraz**

*EGA*  
*Azterketa Batzorde Ofizialeko Zuzendaritza*  
*2010*



## 1. EGA ALTEn

2000 urteaz geroztik EGA ALTEn dago. Berariazko analisia egin ondoren, ALTEk EGA bere Hizkuntza Azterketen Egituran (*Framework*) kokatu zuen: *hiztun gaitua*, edota *hiztun beregaina*.

Europako Kontseiluaren sei mailako eskalan, EGA C1 mailan kokatuta dago, 5.ean alegia. (<http://www.coe.int/>)

ALTE (*Association of Language Testers in Europe*. <http://www.alte.org>) Europako hizkuntz aztertzaileen elkarte da.

ALTE 1990ean sortu zen eta gaur egun Europa osoko 28 erakunde ordezkatutako 24 hizkuntza elkar-tzen ditu. ALTEren Jokabide Kode horrek jada oinarri sendoak dituen arren, etengabeko birmoldaketak eta hobekuntzarako proposamenak egiten ditu, aldiro egiten diren ohiko ALTE bileretan.

Jokabide bateratu horrek hiru partaide nagusi bereizten ditu:

**1. Azterketa prestatzaileak edo hornitzaileak:** batez ere EGako Zuzendaritza, baina baita deialdi bakoitzean parte hartzen duten aztertzaileak eta teknikari guztiak ere.

**2. Azterketa erabiltzaileak:**

EGArako prestakuntza zerbitzuak edo ikastaroak eskaintzen dituztenak: euskaltegiak, batxilergoko ikastetxeak, eta abar; baita, azterketaren ezaugarriak eta maila kontuan hartuta, EGAdunak beren zerbitzuetarako hartu nahi dituzten erakundeak, lan taldeak edo pertsona fisikoak ere.

**3. Azterketa egileak edo hartzaileak:** azterketariak eurak.

Hiru partaide horietatik hau da multzorik handiena eta garrantzitsuen; beste era batera esanda, EGA azterketaren zeregin eta zerbitzu osoa zuzen-zuzenean jasotzen dutenak dira. Oro har, berorien prestigiorako izango da azterketak eskaini behar duen hizkuntz gaitasuna, Europako mailaketa bateratuko C1 zehazturiko trebetasunen arabera.





## 2. ALTEren Jokabide Kodea

---

1994an ALTEko bazkideek erabaki zuten ezinbestekoa zela jokabide kode formal bat onartzea. Kode horrek, batetik, orduko eta etorkizuneko bazkideek beren azterketak prestatzean bete beharreko estandarrak definituko lituzke eta, bestetik, azterketa horien erabiltzaileei eta egileei zer espero beharko luketen jakiteko balio beharko lieke.

ALTEko bazkideek, hizkuntz azterketen hornitzaileak diren neurrian, jokabide kode bat adostua dute, betetzen saiatzen diren estandarrak zehatz azaltzeko eta beren funtzionamenduan dituzten betebeharrak aintzat hartzeko.

Jokabide kodea diseinatzean eta betetzean, hizkuntz azterketetan estandarrak finkatu eta gordetzeko interesa duten partaideen hainbat eginkizun bereizi behar dira. Hasieran esan bezala, hiru partaideak honako hauek dira: azterketa prestatzaileak, azterketa erabiltzaileak eta azterketariak.

ALTEko bazkideek azterketarien eskubideak lau arlotan babestuko dituztela agintzen dute:

- Azterketen prestakuntzan
- Azterketa emaitzen interpretazioan
- Zuzen jokatzeko ahaleginean
- Azterketariei argibideak ematean

Jokabide kodearen lau arlo horiek bi ataletan banatu dira: lehen atala ALTEko bazkideen ardurei dagokie eta bigarren atala azterketa erabiltzaileen ardurei.

Gure kasuan, ALTE erakundeko bazkidea Eusko Jaurlaritza da, Hezkuntza Sailaren bitartez. EGA azterketari dagokionez, ardura nagusia EGAko Zuzendaritzak du.



### 3. EGAko Zuzendaritzaren ardurak

---

#### Azterketen prestakuntzan

EGAko Zuzendaritzak azterketa erabiltzaileek eta egileek azterketa egokiak aukeratu ahal izateko behar duten informazioa eskainiko duela agintzen du.

Beraz, EGAko Zuzendaritzak honako eginkizun hauek bere gain hartzen ditu:

1. Azterketa bakoitzak zer neurtzen duen eta zertarako erabili behar den definitzea. Zein jende multzorentzat egokia den deskribatzea.
2. Mezu jasotzaile guztientzat egokia den xehetasun mailarekin kasuan kasuko neurketa kontzeptuak azaltzea, argi gera daitezen.
3. Azterketa prestatzeko prozesua deskribatzea.
4. Edukia eta neurtu beharreko trebetasunak nola aukeratzaren diren azaltzea.
5. Azterketako ariketen, azterketako oharren, erantzun-orrien, esku liburuen eta azterketarientzako emaitzen azalpenen lagin esanguratsuak eskaintzea.
6. Azterketara aurkez daitezkeen etnia, kultura edo hizkuntza jatorri desberdina duten taldeentzat azterketa egokia dela ziurtatzeko erabiltzen diren prozedurak deskribatzea.
7. Azterketa eginarazteko behar diren baldintzak eta trebetasunak finkatzea eta jakinaraztea.

#### Azterketen emaitzen interpretazioan

EGAko Zuzendaritzak azterketen erabiltzaileei eta egileei emaitzak zuzen interpretatzen lagunduko diela agintzen du.

Beraz, EGAko Zuzendaritzak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

8. Azterketarien lorpenak argi eta zehatz deskribatzen dituzten azterketa emaitzen azalpenak ematea, atzerapenik gabe eta erraz ulertzeko moduan.
9. Gainditzeko nota edota mailak finkatzeko prozedurak deskribatzea. Azterketako puntuazioen azalpena eta interpretazio osoa eta zuzena ematea.
10. Gainditzeko gutxieneko puntuaziorik ez balego, azterketariei nota horiek jartzeko arrazoizko prozedurak ulertzen lagunduko dien informazioa ematea. Esaterako, erreklamatzaren duenari, azterketaren atalak gainditzeko eskakizun maila zehaztea; baita, Lurralde guztietan maila berari eusteko eta bermatzeko egiten diren prozedurak azaltzea.
11. Erabiltzaileak ohartaraztea azterketa emaitzen erabilera okerren kontra.



### **Zuzen jokatzeko ahaleaginean**

EGako Zuzendaritzak bere azterketak era guztietako azterketarientzat (generoaren, etniaren, balio urritasunen eta abarren arabera) justuak izan daitezen ahaleginduko dela agintzen du.

Beraz, EGako Zuzendaritzak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

12. Mingarria gerta daitekeen edukia edo hizkera ekiditeko, ariketak eta horiei dagozkien materialak gainbegiratzea eta berrikustea.
13. Emaitzetan izaten diren aldeak nagusiki neurtu nahi diren trebetasunekin lotura dutela ziurtatzeko prozedurak indarrean jartzea eta ez trebetasun horiekin zerkusirik ez duten faktoreekin, hala nola, generoa edota jatorri etnikoarekin.
14. Aukera berdintasuna ziurtatzearen, balio urritasunen bat duten azterketariei azterketa eta prozedura egokitzea.

### **Azterketen egileei argibideak ematean**

EGako Zuzendaritzak azterketen erabiltzaileei eta egileei ondoren deskribatzen diren argibideak helaraziko dizkiela agintzen du.

Beraz, EGako Zuzendaritzak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

15. Azterketen erabiltzaileei eta egileei informazioa ematea: azterketaren maila finkoa zein den deskribatuz; edo baliokidetzaren sistema azalduz, Europako erreferentzia markoaren zein ALTEko sistemaren arabera.
16. Azterketariak azterketan zer sartzen den, ariketa formatuak, galderen formulazioak eta bestelako oharra eta azterketa egoki egiteko estrategien berri izateko behar diren argibideak ematea. Informazioa azterketari guztien esku neurri berean jartzen ahalegintzea.
17. Azterketariei honako hau jakinaraztea: azterketen kopiak eta betetako erantzun-orriak eskuratzeko, azterketa berriro egiteko, azterketak berriro zuzentzeko edo emaitzak konprobatzeko zer eskubide duten.
18. Emaitzak artxiboetan zenbat denbora gordeko diren jakinaraztea eta azterketa emaitzak nori eta zein baldintzatan jakinaraziko zaizkion azaltzea.



#### 4. Azterketa erabiltzaileen ardurak

---

Azterketa erabiltzaileek azterketa prestatzaileengandik lor dezakete azterketei buruzko informazioa eta horiei dagokien jokabide kodeak informazio horren erabilera zuzenean oinarritu behar du. Azterketa prestatzaileek bezalaxe, erabiltzaileek ere azterketarietara betebeharrak dituzte eta jokabide zuzenaren goi mailako estandarrak finkatzeko eta errespetatzeko konpromisoa hartu behar dute. Ardura horiek lau arlotan deskribatzen dira ondoren: azterketa egokien aukeraketan, azterketen emaitzen interpretazioan, zuzen jokatzeko ahaleginean eta azterketa egileei argibideak ematean.

##### **Azterketa egokien aukeraketan**

Azterketa erabiltzaileek helburuari egokitzen zaizkion eta begiz jotako azterketarientzat egokiak diren azterketak aukeratu behar dituzte.

##### **Azterketen emaitzen interpretazioan**

Azterketa erabiltzaileek zuzen interpretatu behar dituzte emaitzak, interes partikularraren gainetik dagoen informazio osoa emanez. EGAKo Zuzendaritzak argitaratzen dituen emaitza orokorrak jakinarazi daitezke.

##### **Zuzen jokatzeko ahaleginean**

Azterketa erabiltzaileek era guztietako azterketarientzat (generoaren, etniaren, balio urritasunen baten edo besteren arabera) zuzen jokatzeko ahaleginean prestatzen diren azterketak erabili behar dituzte. EGA azterketa materialak argitaratzea (web orrian) eskakizun hori betetzeko bitarteko egokia izan daiteke.

##### **Azterketa egileei argibideak ematean**

Azterketa erabiltzaileek azterketarietara harreman zuzenak dituztenean, lehen atalean ALTEko bazkideentzat Azterketa egileei argibideak ematean izenburupean zerrendatzen diren eginbehar gehienak bete behar dituzte.

---

Washington D.C. Joint Committee on Testing Practices-ek prestatutako *The Code of Fair Testing Practices*-ekiko zorra aitortzen da.



## 5. Europako Erreferentzi Marko Bateratua (EEMB) eta C1 maila

### EEMB



#### Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Markoa

Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Markoa Europako Kontseiluko berrogei herrialdetako hizkuntzalaritza aplikatuaren eta pedagogiaren arloetako adituek egindako lanaren emaitza da, aditu horiek hamar urte baino gehiagoz egindako lanaren emaitza hain zuzen ere.

Erreferentzi Markoa hizkuntza modernoan arloko profesionalentzat prestatu da, eta hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburuei eta metodologiari buruzko gogoeta sorraraztea du helburua, eta baita kurrikulua garatzeko, eta programak, azterketak eta ebaluazio irizpideak zehazteko oinarri bateratua eskaintzea ere, hezkuntza- eta lanbide-arlo batzuetatik besteetarako igarobidea erraztearren.

Europako Erreferentzi Markoa balio handiko tresna da irakasleak prestatzen, programa eta azterketak diseinatzen eta gida eta material didaktikoak sortzen dihardutenentzat.

Europako Erreferentzi Marko Bateratua obrako sarrera hitzak

Ulermena  Entzumena
 Irakurmena
Mintzamina  Ahozko elkarrenergina
 Ahozko adierazpena
Idazmena  Idazmena

### C1 maila • Adierazle orokorrak

#### Entzutezko Ulermen Orokorra

*Gai da* bere espezialitateaz haragoko gai abstraktu eta konplexuei buruzko diskurtso luzei jarraitzeko, nahiz eta litekeena den xehetasunen bat egiaztatu behar izatea, batez ere hiztunaren azentuarekin ohituta ez badago.

*Gai da* esamolde idiomatiko eta lagunarteko asko ezagutzeko eta erregistro aldaketaz ohartzeko.

*Gai da* diskurtso luze bati jarraitzeko, baita oso argi egituratua ez denean edo ideien arteko lotura ustezkoa soilik denean eta era esplizituan adierazita ez dagoenean ere.

#### Irakurmen Orokorra

*Gai da* bere espezialitateko eta bestelako testu luze eta konplexuak erabateko xehetasunez ulertzeko, baldin eta atal zailenak berriro irakurtzeko aukera badu.

#### Ahozko Elkarreragin Orokorra

*Gai da* jarioetasunez eta bat-batekotasunez hitz egiteko, ia ahaleginik egin gabe. Hitzen errepertorio zabala du, eta horrek itzulinguruak eginez bere gabeziak erraz gainditzeko aukera ematen dio. Ez du ia esamoldeen eta saiheste estrategien bila ibili beharrik. Gai kontzeptual zailetan bakarrik izango ditu diskurtsoaren jarioari eta naturaltasunari eusteko zailtasunak.



Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista-programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.

Gai naiz gertakizun-testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. Gai naiz artikulua espezializatuak eta argibide tekniko luzeak irakurtzeko, nire eremukoak ez badira ere.

Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen **bila gehiegi luzatu** gabe. Badakit hizkuntza gizarte- edo lanbide-erlazioetan **malgu** eta eraginkor erabiltzen. **Badakit** neure ideia eta iritziak zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebezia lotzen.

Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.

Gai naiz testu argi eta ongi egituratua osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantziko iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.

### Idatzizko Adierazpen Orokorra

*Gai da* gai konplexuei buruzko testu argiak eta ongi egituratuak idazteko, ideia nagusiak nabarmenduz, nolabaiteko zabaltasunez eta bere ikuspegiari eusteko ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez, eta amaieran ondorio egokiak atereaz.

### Oro har

*Gai da* era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jariotasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.





## 6. ALTEren gutxieneko estandarrak (MS) ingelesez eta euskaraz

	Minimum standards (MS)	Gutxieneko estandarrak (MS)
	TEST CONSTRUCTION	PROBAREN ERAIKUNTZA
1	The examination is based on a theoretical construct, e.g. on a model of communicative competence.	Azterketa oinarrituta dago konstruktuko teoriko batean, adib. gaitasun komunikatiboko eredu batean.
2	You can describe the purpose and context of use of the examination, and the population for which the examination is appropriate.	Deskriba daitezke azterketaren helburua eta erabilera testuingurua, baita azterketa zein populazio motarentzat aproposa den ere.
3	You provide criteria for selection and training of test constructors and expert judgement is involved both in test construction, and in the review and revision of the examinations.	Badira irizpideak azterketa egileak hautatu eta prestatzeko eta irizpen adituak baliatzen dira probak eraikitzeko, eta azterketak berrikusi eta birzuzentzerakoan.
4	Parallel examinations are comparable across different administrations in terms of content, stability, consistency and grade boundaries.	Azterketa paraleloak parekoak izaten dira deialdiz deialdi honako alderdi hauetan: edukiak, egonkortasuna, konsistentzia eta mailaketa langak.
5	If you make a claim that the examination is linked to an external reference system (e.g. Common European Framework), then you can provide evidence of alignment to this system.	Aldarrikatzen bada azterketak kanpoko erreferentzi sistema batekin lotura duela (adib. Europako Erreferentzi Marko Bateratua), orduan erakutsi daitezke frogak nola sistema horrekin bat datorren.

	ADMINISTRATION & LOGISTICS	ADMINISTRAZIOA ETA LOGISTIKA
6	All centres are selected to administer your examination according to clear, transparent, established procedures, and have access to regulations about how to do so.	Azterketa zentro guztiak hautatzen dira azterketa administratzeko prozedura bateratu, garden eta finkatuen arabera, eta hori zelan egin jakiteko arauak eskuragarri dituzte.
7	Examination papers are delivered in excellent condition and by secure means of transport to the authorized examination centres, your examination administration system provides for secure and traceable handling of all examination documents, and confidentiality of all system procedures can be guaranteed.	Azterketa dokumentuak egoera bikainean eta segurtasunezko garraio bidez heltzen dira baimendun azterketa zentroetara, eta azterketen administrazio sistemak ziurtatzen du dokumentu guztien kudeaketa segurua dela eta jarraigarria, eta prozedura sistema guztien konfidentzialtasuna berma daiteke.
8	The examination administration system has appropriate support systems (e.g. phone hotline, web services etc).	Azterketen administrazio sistemak laguntza sistema egokiak ditu (adib. hotline telefonoa, web zerbitzuak eta abar).
9	You adequately protect the security and confidentiality of results and certificates, and data relating to them, in line with current data protection legislation, and candidates are informed of their rights to access this data.	Behar bezala babesten da emaitzen eta zertifikatuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna, baita horiekiko datuena ere, indarrean den datuen babes legeriari jarraiki, eta azterketariak informaturik daude datuok ezagutzeko dituzten eskubideez.
10	The examination system provides support for candidates with special needs.	Azterketa sistemak laguntza eskaintzen die beharrezkoak dituzten azterketariei.



	MARKING & GRADING	ZUZENTZEA ETA KALIFIKATZEA
11	Marking is sufficiently accurate and reliable for purpose and type of examination.	Zuzenketa behar bezain zehatza eta fidagarria da, azterketa-helburua eta -mota kontuan izanda.
12	You can document and explain how marking is carried out and reliability estimated, and how data regarding achievement of raters of writing and speaking performances is collected and analysed.	Dokumentatu eta azaldu egin daiteke zelan gauzatzen den zuzenketa eta zelan ateratzen den fidagarritasun kalkulua, eta zelan biltzen eta analizatzen diren aztertzailen errendimendu datuak proba idatzi eta ahozkoetan.

	TEST ANALYSIS	PROBEN ANALISIAK
13	You collect and analyse data on an adequate and representative sample of candidates and can be confident that their achievement is a result of the skills measured in the examination and not influenced by factors like L1, country of origin, gender, age and ethnic origin.	Bildu eta analizatu egiten dira datuak, azterketari lagin egokia eta adierazgarria hartuta eta ziurta daiteke horien ebaluazioa izan dela azterketako trebetasunen arabera, eta ez faktore batzuek eragindakoa, hala nola L1, sorterrria, gizon-emakume izatea, adina eta jatorri etnikoa.
14	Item-level data (e.g. for computing the difficulty, discrimination, reliability and standard errors of measurement of the examination) is collected from an adequate sample of candidates and analysed.	Item mailako datuak (adib. kalkulatzeko probaren zailtasuna, diskriminazioa, fidagarritasuna eta neurketa errore estandarra) biltzen dira hartuaz azterketarien lagin adierazgarri bat eta analizatuta.

	COMMUNICATION WITH STAKEHOLDERS	KOMUNIKAZIOA PARTE-HARTZAILEEKIN
15	The examination administration system communicates the results of the examinations to candidates and to examination centres (e.g. schools) promptly and clearly.	Azterketen administrazio sistemak komunikatzen dizkie proben emaitzak azterketariei eta azterketa zentroi (adib. euskaltegiak) azkar eta argi.
16	You provide information to stakeholders on the appropriate context, purpose and use of the examination, on its content, and on the overall reliability of the results of the examination.	Parte-hartzaileei informazioa ematen zaie azterketaren testuinguru, helburu eta erabilera egokiaz, edukiez, eta bai azterketa emaitzen fidagarritasun orokorraz ere.
17	You provide suitable information to stakeholders to help them interpret results and use them appropriately.	Parte-hartzaileei behar adina informazio ematen zaie laguntzeko emaitzak interpretatzen eta horiek behar bezala baliatzen.